



Sariak jakitera eman aurretik, Nazioarteko Epaimahaiak zera esan nahi du: Sail Ofizialeko hamazazpi filmeak ikusi ondoren, atseginez egiaztatu du zine munduko izen berriak parte hartu dutela gehinbat.

Era berean, Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren hurrengo ediziotarako, beste kontinente eta herritako filmeren partaidetza handiagoa eskatuko luke.

Hori esanda, Paul Leduc, Presidente; Fernando Colomo; Xabier Elorriaga; Janusz Morgenstern; Karen Shakhnazarov eta Bodo Fruendt-ek osatutako Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren 39. Edizioaren Nazioarteko Epaimahaiak, ondoko sariak eman ditu:

- Epaimahaiaren Sai Berezia: Sergei Shnezhkin-en NIE VOZVRASHE-NETS filmeari, pertsonaia sinesgarri eta errepresentagarrien bidez guztioi dagokigun errealitatearen alderdiak erakusteagatik.

- Zilarrezko Maskorra Aktoresarik Hoberenari: Jackie Mckimmie-k zuzendutako WAITING filmearen AKTORESA TALDEARI: Noni Hazelhurst, Deborah Lee Furness, Helen Jones eta Fiona Press-i, gaur egungo emakumearen bizitzaren alderdi desberdinak errepresentatzeagatik.

- Zilarrezko Maskorra Aktorerik Hoberenari: SILU SEPPAELAEri, Mika Kaurismaeki-k zuzendutako "Zombie eta Tren Mamua"gatik, gaur egungo gizartearen aurka erreakzionatzen duen egungo gazteriaren korronte bat era konbentzigarrian isladatzeagatik.

- Zilarrezko Maskorra Zuzendaririk Hoberenari: BRUCE MCDONALDi, HIGHWAY 61 filmeagatik, protagonisten asetu gabeko ametsak konstatzeagatik humorez eta errespetuz.



- Urrezko Maskorra Filmerik Hoberenari: sormenezko bultzada handiz betetako Juanma Bajo Ulloa-ren ALAS DE MARIPOSARI.

Donostia, 1991ko irailak 27

-Paul LEDUC  
Presidentea

-Fernando COLOMO

-Xabier ELORRIAGA

-Bodo FRUENDT

-Karen SHAKNAZAROV

-Janusz MORGENSTERN